

# 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIA NTZAK

# HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA



## HELBURUA:

Ezarpn-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

**17 GJH da beste sare batzuekin elkarlana eta elkartasun jarduera sustatzea; hau da, nazioarteko lankidetzarako ekintzak bultzatu eta truke kulturala, kooperatibo eta solidarioa sustatzea.**

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Lankidetzarako aurrekontua
- Lankidetzaren sareak
- Lankidetzaren proiektuen sustapena

Garapen Jasangarrirako **17. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango dituen lankidetzaren eremu gehien:



## ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

### Lankidetzarako aurrekontua

Zarauzko Udalak Lankidetzarako partida iraunkorra du bere aurrekontuetan, lankidetzarako aurrekontua % 0,7 baino handiagoa delarik.



Iturria: Zarauzko Udala

2022an Lankidetzarako partidari dagokionez, kopuru absolutuetan (€) %5ean igo bada ere, aurrekontu osoarekiko proportzioan behera egin du 2021eko datuekin alderatuz. Hala ere, berau %0,8koa da.

# HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

## Lankidetzaren sareak

Diru partidaz gain, Zarauzko udalak sare eraldatzaile desberdinetan parte hartzen du:

- **Euskal Fondoa** (Euskadiko Tokiko Erakundearen Garapenerako sarea). Garapenerako lankidetzari egindako ekarpenaz gain, Euskal Fondoa bizikidetzaren baketsuko balioak sustatzea ahalegintzen da, justizian, berdintasunean, tolerantzian eta bizitza sozial, kultural eta politikoan parte-hartze aktiboan oinarrituta
- **FIARE Banku etikoa**: Udala printzipio etiko eta demokratikoetan oinarritutako finantza etiko eta alternatiboekin konprometituta dago baita ere, Fiare Banku etikoaren bazkidea delarik.
- **Bidezko merkataritzaren aldeko hiriak**, zeinetan Bidezko Merkataritzarekin konprometitutako herrietako eragileek osatzen duten. Sare honen helburua esperientziak partekatzearen foro bat izatea da, bidezko merkataritza sustatu eta produktu horiek herritarrengana hurbiltzeko. Gaur egun 4 udalerrik dute ziurtagiria eta Zarautz akreditazio-prozesuan dago, beste 4 udalerrirekin batera.

## Lankidetzaren proiektuen sustapena

Zarauzko Udalak herrian eta munduan zehar burutzen diren hainbat elkartasun proiektu bultzatzen ditu baita ere Gizarte Zerbitzuetako Kooperazio zerbitzuaren bitartez. Horretarako urtero **diru laguntzak** ematen ditu 3 lan-ildotan:


- *Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak garatzeko*: hegoaldeko herri pobretuetan garapenerako lankidetzaren proiektuak garatzeko urterako deialdia, zeinak lehenetsia dute Zarautzen kokatuak dauden gobernu kanpoko erakundeek.

Azken hiru urtetan 578.938 € inbertitu dira, 35 proiektu gauzatzeko erabili direnak.

**2021ean** 194.000 € eman dira, 10 herrialdeetan gauzatu diren herritarren eskubideetan eta osasunaren eragiteko 12 proiektu gauzatzeko.

Iturria: Zarauzko Udala

Garapen proiektuak (kopurua) herrialdeka 2021



- *Heziketa eta sentsibilizazioa egiteko*: Mundu mailan bizi diren desberdintasun ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta generokoak egiturazko arrazoiak dituzte Lan ildo honen helburua herritarrak mobilizatzea eta herrien eta pertsonen ekimen eraldatzaileak martxan jartzea da, kontzientzia kritikoa sortua.

**2021ean** 10.000 € erabili dira mota honetako proiektuak antolatzeko.

- *Gazte kooperanteei laguntzeko*, desplazamendu, bisa eta txertoen gastuak ordainduz. 2020 eta 2021 urtean pandemiaren ondorioz diru laguntza hau bertan behera geratu bazen ere, 2023 urtean berriz martxan jarriko da.

## HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

Diru-laguntza ildo nagusi hauetaz gain, Udalak beste ekimen batzuei zuzendutako baliabide ekonomikoak eskaintzen ditu baita ere:

- *Larrialdiak*: Munduko edozein lekutan gertatzen diren katastrofe naturalek edo gatazka belikoek eragindako krisi humanitarioen ondorioak arintzeko.

Udalak **kultura- eta lankidetzatrukea eta elkartasuna** helburu duten zenbait ekimen babesten eta sustatzen ditu:

- *Oporrak Bakean*: Gatazka militarrek edo hondamendi ekologikoak jasan dituzten lurraldeetako haurrek herriko harrera-familietan oporrak igartzeko programa, haurrek udaldia bizilekutik kanpo pasatu, mediku-azterketak egin eta beste behar batzuk asetzeko aukera ematen duelarik.
- Errefuxiatuak: Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuak hartzeko eta integartzeko martxan jarri duen AUZOLANA proiektua.
- *Sahara*: Zarautz Saharako errefuxiatuen kanpamenduan dagoen Haguniako daiarekin senidetutako dago, honen testuinguruan ekintza desberdinak burutzen direlarik. Sahara eguna, Sahararen aldeko karabana, Oporrak bakean edo lankidetzatrukeak.
- *Azoka Alternatibo Solidarioa*: ingurumena, jasangarritasuna eta giza harremanak errespetatzen dituzten alternatibak eskaintzen diren bertan.

Zarautzek sare solidario zabal eta oparoa du baita ere. Asko dira Zarautzen garapenerako lankidetzan jarduten duten gobernu kanpoko erakundeak, besteak beste, Munduko Begiak; Hotz Zarautz; Misevi; Proyde Proega; Zarautz Herri Zaintzailea; Ekogranela; Fiare; Duintasuna; Salbamendu Maritimo; Alboan,...

### █ EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Zarauzko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Batzordea**



### █ ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Beharrezkoa da gizarte eragile eta administrazio publiko eta pribatuen arteko elkarlana eta lankidetzatrukea sustatzea itunen bidez,
- Gizarte bezala eskuzabalagoak izan beharko genukeela aipatu da, legez eskatzen denetik (%0,7a) haratago joanez. Erakundeen artean gehiago egin beharko litzateke.

### █ ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- REASekiko (ekonomia alternatibo eta soidarioaren sarea) aliantza indartzea